

TOKIKOM

Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria • 2013ko ekaina • 280. alea



**Alkarrekin
herria egiten**



EPOCA-GORO

San Juan, 5. Elbar - 943 700 216 - www.epocasukaldeak.com
ERREFORMAK - SUKALDEAK - BAINUGELAK - ALTZARIAK - DEKORAZIOA



Ikusgarri, Anitz eta Aske



Eneko Beretxinaga Unai Txurruka

Kaixo Unai!

Domekan, udate gabeko ospakizuna egin zan plazan. Ikuskizun politta izan zan, sinbolismo handikua; sorgin dantzia, musika, antzerkixa, edabia, sua, salto eta jauzixak. Antzinatik ekarrixak garaiko akelarre txukun eta ordenatura.

Protagonistak, sorginak. Zuri be erakutsi zotsuen emakume gorputza daukela? A, ba domekan mutil bat be tartian zan. Edo bat baino gehixao ziran? Eztakitt; ez zeguan emakumerik ezta gizonezkorik be. Sorginak ziran. Pertsonak, ez sexuak.

Gaur, ekainak 28, harrotasunan mundu mailako eguna da. Harro, pertsona orok bere sexualitatia modu askian eraiki eta bizitzeko aukera aldarrikatzeko. Trans, homo zein hetero, zorionak eta eskerrik asko gaur zuen eguna dala sentitzen dozenori, zuen borrokak gizarte osua askatzen dabelako.

**“Trans, homo zein hetero,
zorionak eta eskerrik asko gaur
zuen eguna dala
sentitzen dozenori”**

LGTB kolektibuan egoeria ezberdina da munduan zihar. Herrialde batzuetan heriotz arrazoi da. Gurian, pentsatuko dogu onarpen maila altua daukala. Lagun artian “marikoi horrek” esaten dotsagu gutxieneko gizentasuna erakusten ez dabeneri, baina ez txarto hartu, berba eitteko modu bat besterik ez da. Ya, ya... ia noiz hasten garan “heterosexual horil” esaka. Edo.. “Ikusi dozu horren ibileria? Heterua da fijo”.

Hara aurreko asteburuko bi gertaera. Jean-Michel Colo Arrangoitzeko auzapezak bikote homeosexual bat ezkontziari uko egin zotsan. Gay eta lesbianen aldeko kide bat atxilotua izan zan. Bigarrena, gogorra-gua. Zarautzen, adin txikiko neska bat erasotua izan zan. Sexu erasua.

Gizarte sexista baten bizi gara. Gertuen daukagun “homo”-a jada ez da laguna. Barru-barruan daukagu: homofobia.

Ezinbestian, holako egoerak sortzen ditzuzten jarrerekin amaittu bihar dogu. Nola? Bururatzen jata, Sorraluzen, Komite Arroxak antolatzen ditzuan jardunaldi edo ekintzetan parte hartuz izan leikela. Gaixaz berba egin, konpartitu, ezagutu, desikasi eta eraiki.

Unai, zu Komiteko kide zaranez, zein dira aurrera egiteko klabiak?

Aupa Eneko!

Berrogeita lau urte pasatu dira LGT pertsonentzat parrandarako leku seguru bakarretakua zan Stonewall tabernan (New York) gertau zian istiluetatik. Berrogeita lau urte, hetero ez dan guztien aurka jarduten dabene sistemian erortzen hasi zanetik. Hala eta be, ondiok bide luzia daukagu aurretik.

Arrangoitzeko auzapezan kasuak demostratzen dosku homofobia berba egitteko ez daukagula zertan beste kontinente batera begiratu biharrik. Gezur hutsa da European LGT pertsonok normaltasun osoz bizi garala. Egin kontu, Katalunian 2012. urtian bataz beste eguneko eraso homofobiko bat salatu zan!

Plaentxia, tamalez, ez da salbuespena. Herri alai eta solidarixua danan irudixa proiektatzen dogu kanporantz. Baina “ohikoak” ez garen talde sozial txikixok esfortzu extra bat egin bihar izaten dogu hain alai eta hain solidario dan herri honetan duintasunez bizitzeko. Hamaika palentxiarren adibidiak etortzen jataz burura. Neretako ez zan bape erreza izan mutilak gustoko zittuan palentxiar mutil gazte bat izatia institutuan. Eta ziur nago gaur egun be ez dala oso erreza izaten ari plaentxiar gazte-nerabe askorentzat.

**“Plaentxia alai eta
solidarixua izatiaz gain,
Arroxa be izatia bihar dogu”**

Egoera iraultzeko, KA-tik sexualitatia bizitzeko daren eredu anitzak ikustarazi nahi ditzugu. Hain “ohikoak” ez garenon bizitza eta bizipenak ezagutarazi, errespetua ezagutzan oinarritzen baita gure ustez. Eta horra hor, Zinema Arroxa edota egunotan antolatzen ari garen jardunaldixak.

Egixa da Eneko, asko daukagu ezagutzeko, desiskasteko eta eraikitzeko. Plaentxia alai eta solidarixua izatiaz gain, Arroxa be izatia bihar dogu eta.

Gutunak

Elkargune
Herri Jantokia

Oharra
Badira bi hilabete Elkargune herri-jantokiarekin hasi ginela. Denbora tarte hone-tan elkartasunaren bidez, giro atseginaz gozatu dugu! Gure artean ezagutzeko, bizitzako kezka konpartitzeko, eztabaidatzeko aukera izan dugu.

Tokia, lotsa, beldurra, aurreritziak, informazio arazoak ... direla eta, ez ditugu lortu ezarritako helburuak. Bata, premia dutenei elkartasuna adieraztea; bestea elkar-tasunaren bidez sare sozialak sortzea. Hori dela eta, herri-jantokia momentuz bertan behera utziko dugu.

Janaria ekarri dutenei gure eskerrik beroenak. Soberan dauden elikagaiak uda-leko gizarte zerbitzuaren bidez banatzeko asmoa dugu.

Dena den, uda ostean elkartasunean oinarritutako alternatibak lantzeari ekingo diogu (jantokia bera, truke azokak, ortu herrikoia, etxebizitza ...). Jakin badakigu horrelako ekimenak martxan jartzea ez dela erreza, baina konbentziturik gaude, "bizitza duin" bat lortzeko ezinbestekoak dela horrelako alternatibak sortzea.

Beraz, irailean lanari gogozekin eta helburu horrekin elkartuko garela gaude!

Soraluze
Zero Zabor
Taldea

Eman hartu nahi duzun mundua

Eguraldi txarrarekin ere beti alai eta irrifartsu; jirabiraka eta abestuz; eman hartu nahi duzun Mundua!

Eskerrik asko modu batera edo bestera lagundu eta parte hartu duzuen guztioi! Bereziki Olatz-i dantza hain ondo eta fin erakustearren; Kukumixo eta Gazte-txokoari mundubolak egiteagatik; gaztetxeari ekitaldi eguneko laguntzagatik, dantza taldeari beraien dantza orduetatik pixka bat emateagatik, udalari laguntzagatik, Kontrargiri bideoa grabatzeagatik, Aitziberri argazkiengatik, bideoetan parte hartu duzuen guztioi eta nola ez Egoitzi bere laguntzagatik...

Mila esker bihotzez, eta GOGORATU, bihar ere bizia izan dadin, gaur hazia ereiten jarraituko dugu.

Bittartetik



Arianne Uuamano

Erditzea geurea da!

Nerea dilatatuta heldu da ospitalera, lasai. Kontrakzioengatik orroka ari den neska baten ondoko ohean etzan dute. Beldurra, ezinegona.

Mireia zalantzatan dago data tematikoa pasatuta dagoelako, baina ondo sentitzen den arren, ginekologoaren berba gogorrek ez diote irtenbiderik utzi. Beldurra, sumisioa. Erditzea probokatzeari onartu du.

Alazne erditzeko azken fasean dago, bultzaka. Ginekologoak nahi baino gehiago luzatzen ari da jaiotza eta orro egin dio Alazneri bi aldiz: "Oso gaizki egiten ari zara!" "Baina zertan ari da hori!" Beldurra, amorrua.

Paulak umea sabeletik erauz diezaizoten utzi du, medikuen ustez haurtxoa ez delako hazten ari. Beldurra, sumisioa. Ateratakoan konturatu dira uste baino aste gutxiago zituela umeak. Birrikak osatu gabe, neumonia hartu du. Asteak inkubagailuan. Bisita murriztak amarentzat. Beldurra, sumisioa, amorrua. Erizain baten esaldi mingarriak: "ez dakit umeak ama ala amak umea ez ote duen gehiago behar..."

Ez dira lehengo kontuak. Aurten-goak, iazkoak, aurrekoak. Neure gertuko adibideak dira. Osasungintza publikoan emakumeok eta ume jaioberriek tratatu txarrak jasaten ditugu. Amari beldurra eraginez, bere-berea duen erditzean autonomia, babesa eta errespetua ukatzen zaizkio. Badago zer salatu eta zer aldatu: erditzea geurea da!

“Balea zuriak ikusten ditut balkoitik!”

Joakin Zabala
Herriak bihotzean daraman plazentziatarra



Joakin, bere gelako balkoian.

Joakin ezaguna da soraluzetar gehienontzat, batez ere bere umore eta bizi-pozagatik eta bere herriarenganako duen maitasunagatik. Ezagutzen dutenek badakite Plazentzia bihotzean daramala, eta berak ere jakin behar luke Plazentziak bihotzean daramala bera.

Izaten dira pertsona batzuk gauza batenagatik edo bestearengatik herrian arrasto berezia lagatzen dutenak, eta Joakin horietakoa da. Mutrikuko egoitzaraino heldu gara Joakinen arrastoari segika.

**Somatzen da
han ere bizipoza
zabaltzen duela**

Mikel Deuna egoitzan

Osasun arazoak zirela-eta laga behar izan zuen Soraluze Joakinek eta badira bi urte Mutrikuko Mikel Deuna egoitzan bizi dela. Egoitza ederra da, berria, eroso, argitsua; terraza handi bat dauka aurrealdean eta lorategia atzean. Egoitzan giro ona somatzen da, sana, euskalduna-nahiz eta kanpoan ikusi dugun pankartak ohartarazi langileak greban daudela.

Harrerara heldu garenean Joakinengatik galdetu dugu. Harrerako emakumeak irripar egin digu; “ahh Jokin!”, eta egongelara eraman gaitu. Han dago Jokin, aulkian jarrita, inguruko batzuekin berriketan. Gu ikusi orduko jaiki da eta besarkada bana eman digu. “Aspaldiko” esanaz, laster agertu zaio irribarre pikaroa aurpegian, eta berehala eraman gaitu bere “hotelko suita” erakustera. Denak agurtzen ditu bidean eta denek agurtzen dute bera. Somatzen da han ere bizipoza zabaltzen duela pauso bakoitzean.

Itsasoari begira

Gelan sartu orduko gure begirada balkoiko lehiorantz zuzendu du. Itsasoa ikusten da. Lehioa zabaldu eta balkoira atera gara. Ikusmira ederra dago, baina Jokinek hurbilago jarraiarazi digu arreta. Maiuki landareak dauzka lorontzietan eta bi ale gorrituta daude. Ale bana eman digu probatzeko eta “zuendako bihar!” esan die aldameneko terrazan begira daudenei. Letxugak eta kipulak ere badauzka, eta ura egiteko erregaderatxoa ere bai.


**Errotulagailuekin mimoz
pintatzen ditu erretratuak**

Berriz gelara sartu gara eta errotulagailuekin mimoz pintatzen dituen koadroak erakutsi dizkigu. Argazki zahar mordoxka bat ere badu armairuan gordeta eta haiei begira egon gara elkarrizketa gozoan. Argazkia atera behar dugula eta, errealeko bufanda hartu du eta balkoian jarri da posean. Atzean itsaso zabala ikusten da eta esan digu batzuetan balea zuriak ikusten dituela... Esateko hori “sin falta” Plazentziako jendeari.

**Egunero bueltatxoa egiten
du Mutrikun zehar**

“Gero arte Jokin!”

Bisita amaitu aurretik eskapadatxoa egin dugu Galdonara. Han kontatu digu egunero bueltatxoa egiten duela Mutrikun zehar eta dagoeneko ezagun asko dituela herrian. Bueltan berriz egoitzan lagako dugun galdetu diogu: “ezta pentzau be! Ni kalera noia!”. Autobus geltokian laga dugu eta autotik irten orduko ikusi duen andreak agurtu du -guk autotik bezala-: “gero arte Jokin!”.



Baserribideen inbentarioa zehazten

Herriko baserribideen inbentarioa osatu du udalak, Debemenekin batera. Udalaren helburua da "baserribideen jabetza, erabilera-eskubide eta mantentze-lanen ingurukoak zehaztea eta ondoren ordenantza batean jasotzea".



Baserritarrek arreta handiz begiratu zioten baserribideen mapari.

Inbentarioaren aurkezpenaren berrogei baserritar inguru batu ziren, eta euren zalantzak agertu zituzten. Proiektua osatu duen Senda enpresako Guillermo Ruiz de Etxanizekazaldu zuenez, "inbentarioa, etorkizunean arazoak saihestu eta udalak erregistro ordenatu eta antolatua izateko helburuarekin osatu da". Bere esanetan, "legalki, inoiz erabilera publikoa izan duten bideek izaera publikoa izango dute betirako". Horixe izan da, beste irizpide batzuen artean, landa-bideen jabetza eta erabilera eskubidea zehazteko erabili duten irizpide nagusia.

Alegazioak aurkezteko epea zabalik
Alegazioak aurkezteko epea zabalik dago. Hauek aurkezteko udaletxera jo behar da edo 943 75 30 43 telefonora deitu eta Jabi Elorzarekin hitzordua adostu. Udalak dei egin die baserritarrei zalantzaren bat izanez gero, udaletxera joan eta aurkeztu dezaten.

Motzean

Uriarte mintzakidetza taldeko kide
Euskal Iheslari Politikoen Kolektiboak Frantzia eta Espainiarekin berba egiteko mintzaidetza taldea aurkeztu du. Mundu zabalean, kontinente ezberdinetan dauden iheslariek osatzen dute solaskidetza, tartean Eloi Uriarte soroluzetarrak. Uriartek 1974ko irailaren 11n egin zuen ihes eta guztira 39 urte daramatza Soroluzetik kanpora. .



Elkarretaratzea Komite Arroxak antolatuta

Gaur, Sexu Askapenaren Eguna dela aldarrikatzeko, "Ikusgarri, anitz eta aske! Soroluze Arroxa erakitzen" lemapean elkarretaratzea deitu du Komite Arroxak. 19:00etan Plaza Zaharrea batuko dira eta ondoren, gaztetxeo tripafestean hartuko dute parte. Gaueko DJ jaia antolatu dute. Ekainaren 30ean berriz, "Intersecciones" liburua aurkeztuko du Raquel Lucas Plate-rok 18:00etan zinean, eta Gerard Coll Planas-ek, bere aldetik, "Dibujando el genero" liburuaren nondik norakoak azalduko ditu uztailearen 5ean 19:00etan, gaztetxean.



FotoNotizia



Udate gaueko "Sua"

Eguzkia, ura, ilargia, sorginak eta sua izan ziren protagonista nagusiak Pil-pileanek eta Urrats dantza taldeak domekan antolatu zuten ekitaldian. Ehundaka herritar hurreratu ziren Plaza Barrira "Sua" antzezpena ikusi eta dantzara. Gaztetxoek suaren gainetik saltoka jarraitu zuten.

HNOS. BENITO ANAIAK



Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26 , 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Elizpe Hertz klinika

Gure zerbitzuak:

- Ortodontzia ikustezina
- Implanteak

DOKUIMENKO BERRIKUSKETAK
FINANTZAKETA ZURE NEURURIA
KONPROMISORIK GABEKO AURREKONTUA

MUTUALIA, PADI (haurren arretarako hertz programa)

Tel. 943 75 25 67
Ezaburu 3 behea, Soroluze

BIRZIKLAGARRIA NAIZ.

Pentsaera, jarrerak, ohiturak... aldatzeko gai naiz. **Gipuzkoarrok 2016rako %60 birziklatzea lortu behar dugu.** Eta nik aldaketa horretan parte hartu nahi dut.



2 eta 3 LOGELAKO ETXEBIZITZAK GARAGEAK ETA LOKALAK



%100 FINANTZAKETA
140.000 €-tik



943 12 13 95

www.aukera-inmobiliaria.com

140.000 €ko kreditu batekin, 628,60 €ko hilero kuota finkoa lehenengo bost urteetan.

Bisita gidatuak Dolmenen Ibilbidean
Debanatura Elkarteak lau bisita gidatu antolatuko ditu Karakate-Irukurutzeta mendilerroan zehar. Lehendabizikoa domeka honetan egingo da. Hurrengoak abuztuaren 11n (gaztelera), irailaren 22an (euskaraz) eta urriaren 20an (gaztelera) egingo dira. Elgoibarren eta Bergaran berriz, familiei zuzendutako jarduera-tailerrak antolatuko dituzte uztailean, irailean eta urrian zehar. Izen-emateak Debanatura Elkartearen egin behar dira, 943 19 11 72 edo 695 78 36 56 zenbakietara deituta. Informazio gehiago debabarrenaturismo.com webgunean.



Debara joateko autobusak

Astelehenetik indarrean da EuskoTrenen autobus ordu-tegi berria. Ordu-tegi berriak Soraluze eta Eibar arteko hainbat zerbitzu aldatu ditu, Soraluzeetik Debara izango diren autobusak hartu ahal izateko. Soraluzeetik Debara 12.25, 16.25 eta 19.25ean aterako dira, eta Debatik Soraluze 14.35, 17.35 eta 20.35ean. Uztailearen 21a bitartean izango dira indarrean ordu-tegi berriok.

Odol-emate saioa uztailearen 19an

Gipuzkoako Odol-emateen Elkarteak odol-emate saioa antolatu du uztailearen 19rako. 18:30etik 20:30era bitartean, Itxaropena Jubilatuen Etxean egongo dira erizainak, jendea artatzeko gertu. Bereziki, 18 eta 25 urte bitarteko gazteak animatu nahi dituzte odola ematera.

Ekitaldi politikoa eta bazkaria Batzokiaren urteurrenean

Aurten bete dira 25 urte Batzokia "berriz zabaldu zela" eta hori ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu zituen domekan Soraluzeko EAJK. Eguerdiko 12:00etan, eguraldia lagun, hitzaldia eskaini zuen GBBko presidente den Joseba Egibarrek Plaza Zaharrean. Egoera politikoa eta sozialaren inguruan berba egin zuen. Besteak beste, abertzaleek elkarrekin egin beharreko bidez berba egin zuen eta bide horretan EAJK izango duen garrantzia azpimarratu ere bai. Bide hori egiteko "iraganaren autokritika" egiteko eskatu zion ezker abertzaleari, "hogeitamar urteotan egindako ibilbidearen inguruko ardura politikoa bere egitea" ezinbestekoa dela iritzita. Hitzaldiaren ostean, jeltzaleek bazkaria egin zuten Batzokian eta jai giroan amaitu zuten eguna.



EAJKo herriko ordezkariak Joseba Egibarrek.



Batzokia 1936an.

143 umek hartuko dute parte aurtengo Udaleku Irekietan

Haur Hezkuntzako 2. mailatik Lehen Hezkuntzako 6. mailara bitarteko 143 neska-mutilek eman dute izena Kukumixto Aisialdi Taldeak gidatutako Udaleku Irekietan. Uztailearen 8tik 19ra, "euskaraz jo-lastea, elkar ezagutzea eta ondo pasatzea" izango dute helburu. Eta ez hori bakarrik, aurtengo egitasmoan Tonucci pedagogoa italiarraren ildo jarraitzeko asmoa erakutsi dute arduradunek: "haurren hiri irudikatuko dugu Soraluzen. Umeek kaleak bere bilakatuko dituzte eta asanblada txikiak eginez, haurrak arituko dira egin nahi duten horren antolatzaile". Jolasa, imajinarioa eta partehartzea sustatuz, Soraluze

ez ezik, Euskal Herriko txoko ezberdinak ere ezagutuko dituzte eta aurreratu dutenez, uztailearen 19an, sormena kalera atera eta festa giroan arituko dira herriko kaleetan zehar. Herritarrei festarekin bat egiteko gonbidapena luzatu nahi diete.



Aulestiko parkea bisitatu zuten iaz.

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK
**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

Etxabe Harategia
Euskal txahalkia
Bildotsa
Merkatu Plaza 6 - 7 Postuak
T. 943 75 23 75

Alkarrekin herria egiteko saiakera

Alkarrekin Soraluze Eginez herriaren etorkizunaz hausnarketa egiteko udalak abiatu duen prozesu parte hartzailea da. Maiatzean eta ekainean batu da herritarren foroa eta parte hartzaileek gogotsu dihardute.

Maiatzean hasita berrogeiren bat herritar batzen dira antzokian hilero. Elkarrekin, herrian arloz arlo dauden beharrak aztertu eta etorkizunean garatu beharreko ildoak zehazteko saiakera abiatu dute. Udalak (alderdi guztien oniritziarekin) eta Debegesak bultzatu dute prozesua, eta Gipuzkoako Aldundiak finantzatuko du %66an (26.000 euro) eta gainerakoa udalak jarriko du (8.000 euro). Prozesua dinamizatzeko zeregina MIK taldearena izango da (Mondragon Innovation & Knowledge). Asmoa da prozesuan zehar arloz arlo jasoko diren proposamenekin udalaren plan estrategikoa osatzea.

Instituzio eta herritarren arteko elkarlana Alkarrekin prozesuaren helburu nagusienerako bat "herritarren, arloz arloko eragile sozial eta ekonomikoen, eta instituzio publikoen

arteko igurtzia eragitea da, poliki-poliki elkarrenganako distantziak murriztu eta elkarlanean dinamizak eragiteko". Udalaren esanetan "prozesuaren lehen fase honetan herritarren foroaren bitartez ekintza batzuk lehenetsiko dira, eta gero, abendutik aurrera, ekintzak gauzatzeko fasea etorriko da". Bigarren fase horretan elkarlana bideratzeko formula zein izango den zehaztu barik dago oraindik. Horretarako, antzeko prozesuak garatzen diharduten beste herri batzuetako ereduak aztertuko dituzte datozen hilabeteetan..

“Proposamenekin udalaren plan estrategikoa osatuko da”.



Herritarrak kalean.

► EGUTEGIA

Maiatzean hasi eta abendura bitartean, hilero arlo bat edo bi landuko dira. Dagoeneko ingurumena eta ongizatea landu dira, eta hauek dira datozen hilabeteetan landuko diren arloak:

- **Uztailak 3 eta 17**
KULTURA eta KIROLA
- **Irailak 11 eta 25**
GARAPEN EKONOMIKOA
- **Urriak 9 eta 23**
HEZKUNTZA
- **Azaroak 6 eta 20**
EUSKARA
- **Abendua**
FORO OROKORRA egingo da arlo guztietako ekintzak lehenesteko.

PARTE HARTZEKO

Foroan parte hartzeko edo zuzenean informazioa jasotzeko, udaletxera deitu edo idatzi besterik ez da egin behar: 943 75 30 43 / alkate@soraluze.net.

INFORMAZIO GEHIAGO



IRITZIAK



Hiart Arluziaga
Ordezkarri instituzionala

Herriaren etorkizuna hausnartzeko prozesua da. Ez da erronka makala eta herritarrek izango dira prozesuari edukia emango diotenak. Parte hartzea gora doa, ekarpen asko jasotzen ari gara eta herriarendako aberasgarria izango delakoan nago.



Iker Aldazabal
Ordezkarri instituzionala

Lehenengo momentutik prest egon gara prozesu honetan parte hartu eta gure ekarpena egiteko, herritarrekin eta herriko eragileekin batera etorkizunean zelako Soraluze nahi dugun erabakitzeko.



Soledad del Bosque
Ordezkarri instituzionala

Oso interesgarria iruditzen zaigu herrian dauden behar eta lehentasunen inguruan herritarrek duten iritzia ezagutzea. Pentsatzen dugu egitasmoak zehaztea lortuko dugula eta espero dugu politikariok behar den maila ematen jakingo dugula.



Urko Lopez
Dinamizatzailea

“Zelako Soraluze nahi duzue hemendik 15 urtera?” prozesu honek galdera horri erantzun diezaioke. Horretarako soraluzetarren parte hartzea behar da prozesu honetan eta konpromisoa gero erabakitakoa gauzatzeko.



Ana Oregi
Udaletxeko teknikaria

Oso interesgarria da beste pertsona batzuen iritzia entzutea, indarrak batuta eta ideiak elkarbanatuta herri hobea egin dezakegulako. Gizarte indibidualista batean bizi gara eta beharbada garaia da aldatzen hasteko.



Maialen Oregi
Herritarra

Oso pozik nago lehenago inoiz berba egin ez dudan jendearekin berba egiteko aukera eman didalako. Aukera polita da jende desberdinaren artean proposamen berriak egiteko udalari.



Angel Catalán
Herritarra

Parte hartzen dut ikusten dudalako ze behar dagoen herriaren alde zerbait egiteko. Interesgarria da, bilerak ondo egituratuta eta herriaren beharrak ondo aztertuta daudelako.



Rosa Etxeberria
Herritarra

Iruditzen zait herria eraikitzerako orduan, herritarren parte hartzea bideratzen duela eta gauzak behetik gora egiteko aukera zabaltzen duela. Horregatik iruditzen zait interesgarria dela.



Nagore Hermosa
Herritarra

Gonbidapena jaso nuenean ez nuen dudarik izan prozesuan parte hartzeko. Soraluze bertan bizi garenek osatzen dugu eta uste dut beharrezkoa dela denon iritzia jasotzea. Denon inplikazioarekin lortuko dugu Soraluze hobea.

HERRITARREN FOROA: IREKIA EDOZEINENDAKO

Foroaren bileretan, batz besterogeiaren bat lagun batu dira; alderdi guztietako ordezkarri instituzionalak, udaleko teknikariak eta herritarrek. Datozen hilabeteetan ahalik eta herritarrik gehienengana heltzea da asmoa.

Foroa herritarren parte hartzea bideratzen duen organua da. Organu aholkuemailea da berez, baina praktikan erabakitzailea balitz bezela funtzionatzea da udal gobernuaren nahia. Hilean bi aldiz batzen da, eguaztenetan. Bilerek bi ordu inguruko iraupena izaten dute, eta bere funtzioa da; arloak aztertu eta arlo bakoitzean lehenetsi beharreko proiektu eta ekintzak aukeratzea, ondoren udaletxean ordezkarri instituzionalekin eratutako mahaian aurkeztu daitezten.



euskalerrairratia **fm91.4**

#ZuenBaimenarekin

#ZuenBaimenarekin

Nafarroako Gobernuaren
debekuaren aurrean
emaguzue zuen baimena

Bazkidetu!

euskalerrairratia.com

00 34 948 17 01 51



Ongizatea izan da Alkarrekinen ekaineko foroetan landu den gaia. Bertan, auzolana proposatu zuten krisi ekonomiko eta soziala bizi dugun garaiotan elkarren babesean aurrera egiteko tresna modura.

Zer irizten diozu auzolana bultzatzeari?



Itziar Burunza

Zerbait denon artean egiteko aukera baldin badago, ondo iruditzen zait. Kultura arloko kontuetan egiten da. Ondo irudituko litzaidake urtean zehar auzolanerako egun batzuk jartzea, denok parte hartzearen baldintzarekin.



Igor Goiburu

Auzolana positiboa da beti. Jendearekin harremanak, konpartitzea... Kolektibotasuna berreskuratzen da. Derrigor-tzea baino interesgarriago ikusten dut ohitura bihurtzea: "egin behar da, eta listo!". Udaletxetik bultzatuta egin daiteke edo herritarren artean.



Geronimo Valderrey

Jende asko dago hilerio dirulaguntza jasotzen duena eta ondo legoke pertsona horiek lan komunitarioak egitea. Nik ez dut ezagutu herriko auzolanik hemen, lagun artekoa bai. Egia da lehenago jendearen artean armonia gehiago zegoela.



Senaida Acha

Neri ondo iruditzen zait auzolana bultzatzea. Herri giroa berreskuratzeko eta elkarrekin gehiago komunikatzeko aukera emango lukeelako. Nik neuk parte hartuko nuke, bai.

Javier Alonso Zelaleta
 MEDIKU ESTOMATOLOGOA
 K.Z. 20.000.434

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

PASQUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
 jotako tornilluak

Errekalde 21 T. 943 75 00 06
 20590 SORALUZE T. 943 75 16 00
 F. 943 75 24 61

Desing KM

Diseinua eta Formen

Poligono Amillaga, nº 5
 Tlf.: 943 76 99 85
 20570 BERGARA (Gipuzkoa)
 Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Hormo-armairuak
- Barruko altzairuak

Javier Alberdi

EUSKO LABEL

Baimendutako
 harategia
Euskal Okela
 Carniceria
 autorizada

Errebal kalea, 24 • Tel. 943 75 19 32 • Soraluze

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
 Jabe Elkarreak
 Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
 Tifonoa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze
 GIPUZKOA

MENDIZABAL
 okindegia

Kalebarren 10
 T. 943 75 20 91
 Baltegieta 6
 T. 943 75 13 99

SORALUZE

Pala txapelketa finalerdietan

Torturaren Aurkako Emakumeen Pala Txapelketak VIII. edizioa du aurten. Maiatza hasieran hasi zituzten partiduak 10 bikotek eta horietatik lauk egin dute aurrera. Uztaila hasieran finalerdiak jokatu dituzte eta finala San Andres auzoko jaietan jokatu dute uztailearen 13an arratsaldeko 18.00etan. Finalaren ostean afaria egingo dute Txurrukan, aurreko urteetan parte hartu duten palariekin batera. Izena Arrano tabernan eman behar da.

Finalerdiatarako sailkatu diren bikoteak:

Ainara Ladron - Ainara Muga
Amaia Ariznabarreta - Ainhoa Izagirre
Naiara Kortabarria - Nere Aranberri
Juana Mari - Regina Maiztegi

Barçaren zaleen afaria

Zortzi lagun batu ziren urtero denboraldi amaieran egiten duten lagunarteko afarian. Bajaren bat edo beste izan badute ere, aurten Barçak liga irabazi duela eta, giro onean egin dute jatordua.

**Mendi taldekoak Urduñan**

Ehun eta hogeita hamabost medizalek parte hartu zuten ekainaren 23an Urduñara antolatu zuten irteeran. Nerbioi ibaiaren sorlekua bisitatu eta Ungino mendian itzulia egin zuten. Honenbestez, eta partaide guztiei eskerrak emanez agortu du mendi taldeak uda aurreko egutegia.

II. Iñaki Ruiz mendi lasterketa San Andresen

Mendi taldeak uztailearen 14rako antolatu du Iñaki Ruizen omenezko bigarren mendi lasterketa. Lasterketa goizeko 10:00etan hasiko da San Andresen. 21 kilometroko ibilbidea izango du, Pagobedeinkatu, Artzain-txaboleta, Pol-pol, Irukurutzeta, Atxolin eta Karakate zeharkatu dituzte, berriz ere San Andresen amaitzeko. Lasterketak 1000 metroko desnibela izango du eta bi atseden gune jarriko dituzte ibilbidean zehar, bata Artzain-txaboletan eta bestea Karakaten.

Izen-ematea doan

Parte hartzaileek lasterketa hasi aurretik eman ahalko dute izena, 8:30ak eta 9:15ak bitartean, San Andreseko frontoian. Aurretik, www.kirolprobak.com



Parte hartzaile batzuk helmugara iristen iaiko lasterketan.

webgunean egin daiteke inskripzioa. Informazio gehiago: soraluzekomenditaldea@gmail.com helbidean.

FotoNotizia

**Denboraldi amaierako sariak**

Denboraldi amaierako afaria egin zuten Txurrukan, Soraluze Futbol Taldeko jokari, entrenatzaile, zuzendaritzako kide eta klubeko arduradunek. Afal ostean, denboraldiko jokalarierregularrenaketa goleatzaileenak saritu zituzten. Irudian, aurten sariturako jokariak.



Lakuesta
Optika
Ikusmen arazozen frogak
eta argibideak
Parafarmaziako produktuak
Santa Ana, 22 C- behea
20590 Soraluze
T. 943 75 30 59



JUAN MARI
ARRAINDEGIA
943 75 24 40
MERKATU PLAZA
ESKERRAK ASKO PLAZENTZIATARRI
GUGAN IZANDAKO KONFANTZAGATIKI

Obaneukerekin erromeria San Andresen

Uztailaren 13, 14 eta 15ean ospatuko dira aurtengo San Andres jaiak. Urtero moduan, aurten ere egitarau indartsua presatatu dute auzotarrek. Zapatuan Txurruka eta San Andres auzokoen arteko herri kirol desafia jokatu dute. Ostean, herri-



afaria egingo dute (txartelak egunean bertan salgai). Gauean berriz, Zeanuriko Olatz eta Itziar abeslariak eta Azpeitiko Obaneuke erromeria taldeak joko dute, goizaldera arte. Domeka goizean II. Iñaki Ruizen omenezko lasterketa eta pelota partiduak izango dira, baita Paya eta Zubeldia bertsolariak ere. Arratsaldean berriz, V. San Andresko Harria Txapelketa jokatu da. Bertan izango dira: Itzeta III.a, Inhar Urruzuno, Josetxo Urrutia eta Gusta harrijasotzaileak. Bola txapelketa arratsaldeko 19:00etan jokatu da.

Astelehena auzotarrendako

Astelehenean, emakumeen bola txapelketa jokatu da eta bazkaritan Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariak eta Laja eta Lutxurdixo trikitilariak izango dira. Egitarau osoa ikusgai:



Kortrargik euskal trenbideei buruzko erakusketa zabalduko du



Carlos de Cosek sariketara aurkeztutako irudia.

Euskal Herriko trenbideak ardatz zituen Argazki lehiaketa jarri zuen martxan, duela hilabete batzuk, Azpitiko Argazki Elkarteak eta sariketara aurkeztutako zenbait irudirekin erakusketa zabalduko du, uztailaren 2an, Kortrargi Argazki Kolektiboak. Hain zuzen, Carlos De Cos argazkilarik soraluzetarraren irudiak izango dira ikusgai, Euskal Herriko beste argazkilarik batzuen erretratuekin batera. Euskal trenbideekin osatutako argazki bilduma uztailaren 22ra bitartean bisitatu daiteke, ondorengo ordutegian:

Astegunetan: 19:00etatik 20:30era

Zapatuetan: 12:00etatik 13:30era

Kultur agenda

Ekainak 28, barixakua

SEXU ASKAPENAREN EGUNA

19:00etan elkarretaratzea

Plaza Zaharrean eta ondoren, jaia gaztetxean

Ant: Komite Arroxa

AFARI BEGETARIOANOAK

20:30etik aurrera, aitari begetarianoak gaztetxean

Ant: Tripafesta taldea

Ekainak 29, zapatua

KONTZERTUA

Gasteiz Big Band taldearen emanaldia

13:00etan, Plaza Zaharrean

Ant: Soraluze Musikaz Blai ekimena

Ekainak 30, domeka

LIBURU AURKEZPENA

"Intersecciones: cuerpos y sexualidades en la encrucijada"

Raque Lucas Plateroren eskutik

18:00etan, zinean

Ant: Komite Arroxa

Uztailak 5, barixakua

LIBURU AURKEZPENA

"Dibujando el genero"

Gerard Coll-Planasen eskutik

Ant: Komite Arroxa

Uztailak 7, domeka

KONTZERTUA

Abelit@s eta Arale

20:00etan, gaztetxean

Ant: Soraluzeko Gazteria



SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa,
eta berogailuak
sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea Tel. 943 75 16 46 • 639 179 696



TXURRUKA
JATETXEA

www.txurruka.com
943 75 15 81

Zorion agurrak



Paulo Couto
Ekainan 6an 40 urte.
Zorionak eta muxu haundi bat,
Izar eta laniren partez!



Erika Pasenau
Ekainaren 10ean 41 urte.
Zorionak polittori,
Miriam eta lkerren partez!



Zaloa Garcia
Ekainaren 24an 5 urte.
Zorionak polittori!! Muxu
handi bat etxekuen partetik.



Antxon Zubiaurre
Uztailaren 8an 9 urte.
Zorionak eta muxu haundi bat
etxekoen partez!



Unax, Onintza eta Zuhaitz
Uztailaren 2an, 4an eta 15ean.
Zorionak hirukote!!!! Jarraitu bihurri eta
muxu haundi-haundi bat, etxeko danon partez!



Unax, Onintza eta Zuhaitz
Uztailaren 2an, 4an eta 15ean.
Zorionak hirukote!!!! Jarraitu bihurri eta
muxu haundi-haundi bat, etxeko danon partez!



Lide Sudupe
Uztailan 1ian 3 urte!
Zorionak poxpolintxo eta
muxu haundi bat danon partetik!

Jaiotakoak eta hildakoak



Iker Laskurain Lopez
Karla Amutxastegi Azkoitia
Ander Martin Maiztegi
Lide Viciosa Garitano



Victoria Etxeberria Zuloaga

Lehiaketa

**Zein
da?**



Saria:
Argia
Mihiluze
mahai jokoa.

Oharra: Lehiaketako irabazlea aukeratzeko zozketa alea
etara eta hurrengo barixaku eguerdian egiten da.

Deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpilean.com** datorren **barixaku eguerdia** baino lehen.

Aurreko aleko erantzuna

Gaizka Azkarate, herriko musikaria.

Irabazlea



Ez zen egon
erantzun zuzenik.



Iturria: Mari Fran Aizpuru

Sei emakume kantari, lotsarik gabe

1963ko ekainaren 21ean, Elizako abesbatzan kantatzen zuten sei neska gazte batu ziren. Musika modernoagoa abesteko afizioa zuten, eta taldea sortzea pentsatu zuten, Blue Bel (kanpai urdinak). Gogoan dute izena Luis Iriondok jarri zela, eta Don Ascensio abadeak doinuak eta errimak ateratzen lagundu zela. Kantuetako letrak CDak entzunez ikasi zituzten, eta ahaleginari esker, oso maila ona lortu zuten oso denbora gutxian. Soraluzeko zinean eskaini zituzten lehen emanaldiak, eta izan zuten arrakasta ikusita, beste herri batzuetan eskaini zituzten emanaldiak, eta hainbat lehiaketetan ere parte hartu zituzten.

Saririk handiena gaineko irudian ikus daitekeen Eibarko Jai Alai aretoan irabazi zuten, 10.000 pezetakoa. Sasoi hartarako diru asko zen (batez ere emakume izanda), eta irabazitakoa dohaintzan ematea erabaki zuten. Horrela erosi zen Mesedeetako Amaren egoitzarako lehen telebista. Blue Bel talde aintzindaria izan zen oso, eta profesional mailan jarduteko aukera asko izan arren, emakumez osatutako taldea izanda, gizartearen presioagatik, desegitea erabaki zuten. Hala ere, urtero batzen dira elkarrekin bazkaltzera, eta garai hartako oroitzapenak berritzen dituzte.

Argazkian, ezkerretik eskumara, goian:

Michaella (artista espainiarra), Gloribel Oregi, Rosa Mari Aizpiri, Mari Fran Aizpuru, Ezozi Juaristi, Maria Jesus Mendia eta Koro Larrañaga.



LAZARO LAGOMA LABARI
2013KO MAIATZAREN 20AN HIL ZEN,
86 URTE ZITUELA

*"Haizeak dakarrena, haizeak darama,
betiko izango zaitugu gogoan.
Ez agurrik, ez adiorik, gero arte bakarrik"*

Zugandik gertu gaituzu Zu ere gertu behar zaitugu

TOKIKOMeko hedabideak gertu-gertukoak gaituzu. Zure inguruan gertatzen dena kontatzen dizugu. Zure hizkuntzan. Zure erara.

Lan ederra da eta, ondo egiten jarraitzeko, zu ere ondoan behar zaitugu. Makina bat erataria lagundu ahal diguzu: berriak emanez, albisteak idatziz, harpidedun edo bazkide eginez...

Gertu zaude? Idatzi gertu@tokikom.com helbidera eta hitz egingo dugul!

TOKIKOM

TOKIKO
KOMUNIKABIDEEN
BATERAGUNEA

Hirinet.net	Aikor	Barren	28 kanala		
Berton	Aikor.com	Elgoibarren.net	Karkara		
Bilbo Hiria irratia	Anboto	Baleike	Karkara.com	Txintzarri.info	
Prest!	Anboto.org	Baleike.com	Antxeta irratia	Alurri	
Uk	Goiena Papera	Erlo telebista	Hernaniko Kronika	Aiurri.com	Xorroxin irratia
Ukberri.net	Goiena.net	Uztarria	Kronika.net	Ttipi-ttapa	Guaixe
	Goiena telebista	Uztarria.com	Noaua!	Ttipi.net	Guaixe.net
	Pil-pilean	Goierri telebista	Noaua.com	Xaloa telebista	Beleixe irratia
	Plaentxia.com	Galtzaundi	Txintzarri	Mailope	Euskal Herria irratia
		Galtzaundi.com			



Azken 2 etxebizitza Soraluzen

Azken 2 etxebizitzak. Alokairuan, erosteko aukerarekin: %10 sarreran.
Hileko alokairua zehazteko. Salmentako prezioetik deskontatuko dira ordaindutako kopuru guztiak.

Soraberri Promozioak Informazioa: **689 420 761** Eraikitzailea: Egaralur www.egaralur.net



San Andresko Jaia

Uztailak 13,14,15

Soraluzen

Barikuan makala tentetzia
eja txorixo-probatzia elkarfian

Uztailak 13, zapaſua GAZTE EGUNA

Eguerdi 13.00etan jaixen hasieria kanpai bueltiak
18:00etan Emakumeen pala-txapelketako finala
19:00etan Herri kirol desafixua: San Andres - Txurruka
21.30ean HERRI-AFARIXA*
23.00etan Esfi eja Olatz gitarrarekin eja
OBANEUKE jaldiarekin erromerixia
Afsedenaldixan txerri-harrapatzia eja txokolafe-jana

Uztailak 14, domeka JAI EGUNA

10:00etan Inaki Ruizen Omenezko II. Mendi Karrera
12.30ean Mezia
13.00etan Pelofa partiduak
UNAI eja ENAITZ Iririkilarixak eja
FREDI PAYA ETA IKER ZUBELDIA berfsolarixak
13:45ean Mendi karrerako sari-banaketia
14.30etan Bazkarixa berfsolarixekin
18.00etan V. SAN ANDRESKO HARRIA TXAPELKETA
Izeta III.a. Inhar Urruzuzuno, Joseſxo Urrufia eja Xabier Aranburu "Gusſa"
19.00etan Bergarako zezentxuak eja ponixak
19.00etan Bola-txapelketa

* HERRI AFARIRAKO TXARTELAK egunean berſan izango dira salgai San Andresko elkarſean.
Afariko menua: Enſalada, Bakailau forſila, Saiheskia, Postrea, Kafea, Kopa. Prezioa: 15 euro.

Uztailak 15, Astelehena AUZOKOEN EGUNA

12.30ean Mezia
13.00etan Umiendako jolasak
13:30ean Emakumien bola-jokua
14.30ean Auzojarren bazkarixa frontoian
Bazkalosſian LIZASO ETA EGAÑA berfsolarixen saia
eja LAJA eja LUTXURDIXOekin erromerixia
Afaria eja LAJA eja LUTXURDIXOK alaiſufako erromeria

Antolatzailea

Laguntzailea

San Andres Elkartea

Soraluzeko Udala

San Andres Elkartea Soraluzeko Udala